

## TIKOT ORZATXATARREN HISTORIA

Enma Arestegui, 12 urte

*Hazparne*

Munduko Lehen Gerla ondotik hamabi bat urte iragan ziren. Garai hartan Tolosan ostatu asko ireki ala berrireki ziren. "Ongidan" haietarik bat zen. Han ongi edaten eta jaten zen. Kanpotik zahar itxura zuen, baina barnea, ontsa argitua eta bertua, giro onekoa zen. Gainera, herriko kaleetarik ederrenean zen.

Han bizi zen Kitto, hamar urteko mutikoa. Kitto deitua zen ttipia baitzen bere hamar urteendako. Ile beltz oso ilunak zituen, larru beltzaran argia, begi argiak, hortz xuri ederrak eta irri xarmant bat. Kilo bat ala bi gehiegi zeuzkan eta oso argia zen bere adinerako. Burrasoekin bizi zen. Egia erran ez ziren bere egiazko burrasoak eta bazekien. Oso ongi orroitzen zen zazpi urte zituenean mirailean luzaz begiratzuz, erran ziola bere aitaordeari:

–Aita, zergatik zira zu xuria eta ni beltzarana? Amak ile laranjak ditu, zuk horailak, eta nik beltzak?

–Orai, mutiko aski handia baitzira, egia erranen dautzut: duela zazpi urte, nire lagun baten emaztea hil zen zuri sortzea emanaz, zure aitak, tristurak joa, gurekin utzi zintuen. Ordutik, guk gure bihoztean zuretzat leku bat atzeman dugu eta zuk gu zure egiazko burrasoak bagina bezala maitatu behar gaituzu!

Hori jakin zuenean galduta bezala senditu zen eta murru ikustezin bezalako bat agertu zen bere burraso-orde eta bere artean. Baina biziki ongi orroitzen zen ere Elenaren ezagutza egin zuen egun ederraz: ametsetan zen bere egiazko burrasoekin, eta emazte borobil bat agertu zitzaion irriz. Emazte ttipia zen, ile hori-laranjakoa, begi berde eta zabal batzuekin. Kittori begiratu, ingeles doinu azkar baina ahots ezti batez erran zion:

– Zer da, mutil, ametsetan? Iduri du triste zirela! Badakizu, eni konfiantza egiten ahal didazu, ez naiz gaiztoa!

– Ez, ontsa naiz, bakarrik... galdera bat badut kezkatzen nauena: nire aita eta ama hilak dira, baina niri, haien semea, ez didate deus utzi. Nitaz futitzen ziren edo?

Elenaren aurpegian irri misteriotsu bat agertu zen. Deus erran gabe, Kittoren eskua harrapatu eta “Segi nazazu!”, erran zion. Kittok, jakinminez, ezer erran gabe segitu zuen. Elenak sukaldera ereman zuen eta Kittori esplikatu zion bere burraso-ordeen

ostatuko sukaldaria zela. Sukaldera arribatu zirenean, erdi gordea zen armairu bat ireki zuen emazteak. Handik atera zuen kutxa beltz luze eta gakotu bat. Ireki zuen eta gitarra baino tikiago zen musika tresna bat erakutsi zion. Kittok harriturik hunki zuen zur goxoa eta ezti koloreko musika tresna.

–Bibolin bat da. Zure aitak utzi zidan desa... hil baino lehen, erran zion Elenak.

–O.. oso ederra da. Orduan, ene aitarena zen? Zuri utzi zizun? Enetzat? Mi... milesker anitz!

Bere aitaordeak ez zuen sobera ongi hartu, baina kexua fite desagertu zitzaion.

Kittok bibolina ongi jotzen ikasi eta bezeroentzat jotzen bazuen, sos pixka bat biltzen ahalko zuen. Gainera, bazuen ezagun bat bibolina ongi jotzen zuena eta beharbada kurtsoak emaiten ahalko zizkion bazkari batzuen truk Dena horrela gertatu zen: Mintzor jaunak Kittori kurtsoak emaiten zizkion, eta gero bazkari bat zeukan ordainez. Gizon hori zaharra eta gaiztoa zen, baina ikusiz Kittok bibolina zenbat maite zuen, goxatu zen. Eta hala, Kittok bezeroei musika partiturak jotzen zizkien, sosa galdeginez ondotik.

Hala, goxoki pasatu ziren hiru urte. Baina gertakari ikaragarri bat gertatu zen 1939. urtean, Kittok hamar urte betetzean: alemanen gerla zapartatu zen. Kittoren aitak erran arren Alemanian bazituela ezagutza haundiak, mutikoa beldurtua zen. Gainera, ohartu zen karrikan ibiltzen zenean gizon bitxi batzuek segitzen zutela. Orduan, lasterka hasten zen. Baina zer ote zuten bere kontra, hamar

urteko mutiko bat? Bezeroak alemanak ziren bakarririk eta sos guttiago irabazten zuen. Kitto ez zen gehiago ateratzen gizon haien beldurrez.

Elenarekin mintzatzan zen usu eta hark zion kontseilu emaiten. Elena ere bitxia bilakatu zen. Batzuetan gauza bat erraiteko zorian zen, baina gelditzen zen beldurturik bezala.

Baina, egun batez, zoritxar haundi bat gertatu zen: Elena erdi urkatua eta koma sakon batean atzemana izan zen sukaldean. Kitto haserre, triste, okaztatua eta urduri zen. Baina nork ote zuen munstrokeria hura egin? Zergatik? Eta orduan erabaki zuen bere galderei erantzunak atzemaitea. Bi jenderi pentsatzen zuen: lehenik Antoniori, sukaldari ona, jelos zen Elenaz, zeren emaztea sukaldari hobea zen eta usu kexatzen ziren; beste pertsona aldiz... ikaragarria zen bera zela pentsatzea, egia... azken denbora haietan Kittok entzun zuen Elenarekin kexatzen, baina hala ere... pertsona hori Ongidan jauna zen. Bai, Kittoren aitaordea...

Lehen aldia zen Kitto "inspektore" bilakatzen zela eta, egia erran, ez zekien zerekin hasi. Orduan, behatzea pentsatu zuen: Antonio lehen baino alaiago zen, kantuz ari eta txisteak erraiten zerbitzariei; bitxia zen, zeren Elena urkatua izan baino lehen marmarka aritzen zen. Felipe, aldiz, goibel, beldurtua ibilki zen..."Felipe Ongidan" Kittoren aitaordearen izena zen. Ongidan izen hori bere ostatuari eman zion. Bere emazteak Katalin zuen izena. Ez zen ezertaz okupatzen, salbu bere lagun eta auzoen istoriotxoez. Kittoz orroi-

tzen zen bakarrik denei erraiteko seme argi, xintxo eta txukuna zuela...

Anartean, Kittok bibolina jotzen segitzen zuen bezeroentzat. Baina bibolina jotzen zuen ere bere buruaren kontsolatzeko. Elenari bisitak egiten zizkion ospitalean.

Baina ospitalera joaiten zen egun batez bi gizon misterioetsuk besotik heldu zioten. Kitto oihuka hasi zen. Harriturik, bi gizonak laxatu zuten eta Kitto lasterka hasi zen ospitalera buruz. Sartu zen ospitalera ero bat bezela. Harrerako emazteak harriturik so egin zion haur lasterkariari. Kitto gelditu zen korritzetik ospitaleko korridore haundian. Bazekien leku hartan bi gizonak ez zutela segituko! Sartzeko emazteari erran zion Elenaren ganbarara zihoala. 217. ganbarako borta zabaldu zuen. Elenaren ondora hurbildu zen poliki. Elenaren lepoak oraino marka ubel izigarri haiek zituen. Elena ez zen gehiago koman; atera zen. baina abantzu denbora osoan lotan egoiten zen. Eta bat-batean ametsetan bezala hasi zen mintzatzen: "Ez! Ez nazazu hunki! Egia erran behar diozu! Pentsa Ametsi! "Kitto segur zen bere lagun haundiak erran zuenak zerbait ikustekorik bazuela berarekin. Baina nor ote zen Amets?"

Etxera itzuli zen lasterka eta entseatuz jende multzoekin batera ibiltzera. Baina bi egun berantago ber gauza gertatu zitzaion: lehenik, bi gizonak joan zen aldian bezala segitu zuten, haien esku zikinetatik eskapatu zen oihuka hasiz. Jende batzuk itzuli ziren. Orduan, bi gizonak laxatu zuten. Eta

gero Elena berriz mintzatu zen; orduan, aldiz, aha-  
peka ari zen.

– Ametsek erran dit eguneroko kaiera bat bazi-  
nuela, pentsa mutikoak atzemaiten badu, Felipe!

Felipe!? Bere aitaordeak zuen erdi urkatu  
orduan! Kexuak eta ezin sinetsiak Kitto partekatzen  
zuten. Antonio errugabea zen orduan? Ongidan  
jaunak eguneroko bat bazuen? Eta nor ote zen  
Amets misterioitsu hori? Kittok muxu ttipi bat utzi  
zuen Elenaren matelan eta ospitaletik aldegin  
zuen. Etxera arribatzean, bibolina jotzen hasi zen.  
Gainera, laster eguerdi zen! Baina jantokira heldu  
zenean, ohartu zen bezero bakar bat zela ari jaten.  
Sinpleki beztitua zen, baina dotore. Triste iduri  
zuen. Larru beltzarana eta begi beltzak; ile beltzak  
grisarekin nahasita. Gaztea izan behar zen, baina  
hamar urte gehiago zituela iduri zuen. Bere biboli-  
narekin aire lorios bat jo zion. Gizona itzuli zen jota  
bezala, Kittori begiratu zion luzaz. Oren erdiz jo  
zituen musika alaiak. Bukatu zuenean, gizona zuri-  
zuria zen; handik aldegin baino lehen 50 liberako  
billete bat eman zion. Baina Kittok beste zerbait  
zuen gogoan: bere aitaordearen egunerokoak!  
Emeki joan zen bere burrasoen ganbarara. Nundik  
hasi xerkatzen? Liburuak miatzea pentsatu zuen  
lehenik: “Bizi gaizto bat”, Xan Zeramolera-rena;  
“Paradisuko usainak”, Andrea Loregoxo-rena;  
“Pefileren bizia”, Pefile Ganidon-ena;”testu auto-  
biografiko bat segurrenaz ere!”, pentsatu zuen  
Kittok. Testu autobiografiko bat!? Gainera, Pefile  
Ganidon ez ote zen Felipe Ongidan-en anagrama?

Liburua hartu zuen. Liburu urdin bat zen eta bere aitaordearen argazki bat zuen gibelean. Ireki zuen eta pixka bat harriturik, ohartu zen eguneroko batean bezala antolatua zela. Orduan, lehen orrialdea hasi zen irakurtzen:

“Gaur, abenduaren 27a, 1927 urtean, Kattalineek oparitutako egunerokoa hasi dut. Oren baten buruan joan behar dut ene lagun zahar batekin sos-jokoetan aritzera. Judu bat da eta beti sosez betea da! Egia erran, gerglan denbora txarrak pasatu ditu, baina ez du jokoen gustua galdu! Are, banoa.”

Kittok orrialdea itzuli zuen eta ohartu zen ez zela arras eguneroko bat: Abenduaren 27tik urtarrilaren 3ra heldu zen. Hastapenean ez zuen ezer interresgarririk kausitu, baina, gero, Martxoaren 7koan, zera irakurri zuen:

“Martxoaren 7n. ostilara, 1928. urtean. Gaur 200 libra irabazi ditut! Hogeita hamar, karta joko on bat nuelako eta beste ehun eta hirurogeita hamarrak, iruzur egin baitut! Ez naiz fier, baina beste aldian bost aldiz gehiago irabaziko dut! Gainera, ez da nehor ohartu, Amets ere ez! Baina ez naiz penatua, zeren egia erran, hartaz jelos naiz: badu emazte eder, serios, gazte eta abil bat. Sosa badu bere salerosketa ttipiak eginez, eta ni zerbitzari egon behar naiz! Baina ez luzaz, ainitz sos irabaziko dut eta nire ostatua sortuko dut”.

Kittok bazekien bere aitaordea gaiztoa zela baina ez zekien iruzurgile bat zela. Eta nor ote zen

Amets hori? Akiturik atera zen bere burrasoen ganbaratik.

Biharamunean ez zen joan Elenaren ikustera, bi gizonen beldurrez, eta, gainera, hamarrak eta erditan bibolin kurtsoa zuen. Dena ongi pasatu zen. Egurditan jantokira joan zen eta ohartu zen joan zen eguneko gizon bitxia han zela, urduri baina hala ere, lasaiago. kitto hasi zen jotzen aire triste bat. Bukatuta, gizon bitxiak errantzion:

– Egun on! Ongi jotzen duzu, nondik datorkizu bibolin eder hori?

– Mmm, nire aitak utzi zautan hil baino lehen.

– Aaa! Ontsa. Eta egunero heldu zira?

– Bai.

– Eta nola deitzen zira? Ni, Maset Zortatxar naiz.

– Eta ni, Kitto Ongidan. Bihar arte, beharbada!

– Bai, bihar arte! erantzun zuen Zortatxar jaunak.

Eta Kitto eskapatu zen bere burrasoen ganbarara. Ganbara zabala, urdin argiz tindatua eta koadro ezberdinekin apaindua. Kattalin biziki apaintzaile ona zen. Liburu urdina harrapatu zuen eta hasi zen orrialdeak itzultzen:

“Martxoaren 18a.

Kattalinek haur bat goaitatzen du, hirugarren aldi-kotz! Espero dut ongi pasatuko dela, kontrakoaz segur banaiz ere. Gaur 800 libera irabazi ditut. Urte erdi baten buruan ostatua eginaraziko dut. Orotara 5000 libera ditut.”



“Martxoaren 29a 1928.urtean.

Kattalinek beti haurra atxikitzen du. Gaur Amets ez da agertu jokora. Segurrenaz ere, sos eskasez. Gaixoa, ez da ohartzen ere berari irabazitako diruarekin ostatu bat ari naizela pagatzen! beharrik hala ere, zeren bestenaz presondegira igorriko ninduen!”

“Apirilaren 11a.

Orotara 7000 libera ditut. Ohartu naiz iruzur egitea droga bat bezala dela: hasita ezin da gelditu! Amets alai-alai da, ezkonduko baita. Horregatik guttiago pariatzen du. Eta beste jokalaria batzuk atzeman beharko ditut. Kattalinek beti barnean du umea. Erran dizkiot ene proiektuak. Lehenik ez zekien zer erran, baina gero aski uros iduri zuen”

“Maiatzaren 9a.

Hara, Kattalinek bere haurra galdu du! Joan ziren aldietan bezala, nigar egin du. Bere kontrolatzeko erran diot ostatua berak zuela apainduko eta segidan lasaitu da! Orotara 10000 libera ditut, baina askoz gehiago beharko dut ostatuarentzat. Amets eta Goizeder atzo ezkondu ziren. Biak ederrak ziren eta ni jelskor.”

Kittok, akituta, bere irakurketak gelditu zituen. Eta bibolin pixka bat jo zuen lasaitzeko.

Biharamunean, Elenaren ikustera joan zen. Ez zituen bi gizonak ikusi. Eta Elenak ez zuen deus interesgarririk erran, salbu: “Amets non zira, Amets...”

Kitto etxeratu zen. Bazkaldu zuen eta bere bibolina atera zuen jantokira joateko. Zortatxar jauna

han zen. Presaka jo zuen musika partitura alai bat. Sos anitz eman zion Zortzatxar jaunak. Kittok eskertu zion abilki baina presaturik. Bere burrasoen ganbarara igotzean, aitaordeak gelditu zuen eta erran zion:

– Ah! Hemen zira! Hara, badut gauza bat erraiteko: zure amak eta nik pentsatu dugu gerla ez zela gauza ona zuretzat eta, beraz, nahi ginuke joan bizpahiru urtez Ameriketara eta...

– Baina, moztu zuen Kittok, uste nuen alemanekin harreman onak zenituela!

– Egia da, baina zuretzat ez da on eta, gainera, bakantza pixka bat hartzeak on egingen dukul! Hara, hori nahi nautzun erran; hiru asteren buruan goaz, zure urtebetetzea iragan eta bi aste geroago.

– Milesker erraitegatik. Mmm, banoa pausatzer!

Kittok harri pizu bat senditu zuen bere erraieran. Segidan ohartu zen bere burraso-ordeek joan nahi zutela “Bakantzak hartzera”, ez haien semearentzat, baina beste gauza misterioitsu baten beldurrez. Kitto, hala ere, pixka bat larritua zen. Elena hobeki zen, baina ez zen xutik izanen, bederen hilabete bat eta erdi batez. Horretan pentsatzen egon gabe, burrasoen ganbarara joan zen, liburu urdina hartu eta hasi zen irakurtzen.

“Maiatzaren 28 a.

Egun dira berriz etorri Amets eta Goizeder beren ezkonbidaiatik. Italiara joan dira. Goizeder oraino

ederrago da, Amets alai-alai. Ez dakit zendako, beti haietaz jelos naiz baina lasaitzen naiz zenbat diru irabazten dudan. 20.000 liberatan naiz”:

“Ekainaren 8a.

Gaur atzeman dut ostatu baten egiteko lekua. Kale ederren erdian. Oso zaharra da, baina ez biziki kario! Orotara 70000 libera beharko ditut: 40000 beharko ditut lekuaren erosteko, 30000 berriz apaintzeko... Eta ni 35000tan naiz. Hilabete baten buruan erosiko dut. Anartean iruzur egin diet hamar jokolariri bederen... Denek deitzen naute Joko jauna”

“Ekainaren 26a.

Hara erosi dut! Bikaina da: zabala, argia eta kanpotik ikusita zaharra. Kattalin eta bi langile hasi dira tindatzen.

“Uztailaren 5a.

Bi sukaldari aurkitu ditut: Elena eta Antonio, Elena Ingalaterratik heldu da eta biziki alai da. Antonio Italiarra da. Salerosketa tipiak eginez bizi zen. Baina konfiantzazko gizona da. Amets uros da eta berriz sos asko pariatzen du. Ez dakit zendako, Goizederrek eri iduri du...

“Uztailaren 15a.

Aste baten buruan irekiko da NIRE ostata. Eta uste dut ere, Amets nire iruzurrez ohartzen hasia dela! Baina entseatuko naiz hobeki gordetzera nire joko.”

“Uztailaren 26a.

Gauza ikaragarri bat gertatu zait! Ene lagun hobere-naren emazteak haur bat goaitatzen du. Bai Amets aita

izanen da! Eta nik ezin dut haurrik ukan! Zer malur haundia<sup>a</sup>! Ni, "jokoen jauna", haurrik gabe! Zer balio du sosa ukaitea eta haurrik ez!! Zinez malur haundi bat da: oraino jeloskorrago naiz!"

"Abuztuaren 6a.

Haurra martxoaren sortu beharra da. Espero dut galduko duela Goizederrek! Gainera, ez du ontsa iduri!"

"Abuztuaren 16a.

Orai irekia da nire ostatua! Eta ez dut sobera denborarik: normala da ez astero idaztea!"

"Irailaren 9a.

Tronpatu nintzen! Amets ez da deusetaz ohartu! Sobera okupatua da bere haurraz! Zein jeloskor naizen! Ametsek 1000 libera zor dizkit.

Kitto ohartu zen bere aitaordea zinez gaiztoa zela! Baina irakurri zuen zerbaitek kezkatzen zuen: Amets bere egiazko aita ote zen?

Hiru egunez horretaz pentsatu zuen. Ez zekien zer egin. Hiru asteren buruan joanen zen, bere egiazko burrasoak hilak zeuden eta Elena eri. Hartzen ahal zuen bere aitaordearen egunerokoa eta poliziari ereman, baina zer egiteko? Orduan erabaki zuen onena zela liburua irakurtzen segitzea. Zortatxar jauna Kittorekin oso abila zen. Eta batzuetan Kittok dena erran nahi zion, baina gelditzen zen.

Bere irakurketak segitu zituen, ez zen deus interesgarririk: bakarrik jelos zela eta Ametsek 3000 libera zor zizkiola...

Baina Azaroaren 17an zera irakurri zuen:

“Azaroaren 17a.

Goizeder berriz haurdun da! Baina biziki ahul da. Amets biziki kezkatua da, medikuek erran dute behar-bada egingo zuela haurra ukan. Zein kontent nintzen hori jakitean!”

“Abenduaren 3a.

Eguberriko festa handi bat eginen dut. Amets eta Goizeder hor izanen dira. Ametsek zor zizkidan sos guziak eman dizkit! Eta nire ostatua beroarazi dut.”

“Urtarrilaren 21a, 1929 urtean.

Kattalin eri da, sobera errege-bixkotx jan baitu! Gainera, uste dut Goizederrez pixka bat jelos dela. Ostatua arras bukatua da. Anitz jende heldu da eta Ametsek bazuetan bibolina jotzen die bezeroei. Zinez bibolin jole ona da; bere odolean da, zeren bere aitak ere bibolina jotzen baitzuen.”

“Otsailaren 4a.

Goizeder oso ahuldua da. Medikuek erraiten dute ez duela atxikiko, baina berak baietz! Nik espero dut ez duela atxikiko! zeren atxikitzen badu, Kattalineak eskandalu bat eginen dit.”

“Otsailaren 25a.

Idea bat etorri zaut burura. Oso itsusia da, baina beno... Ezin dut oraino idatzi, baina hasia naiz martxan ezartzen. Goizeder biziki ahuldua eta akitua da.”

“Martxoaren 14a.

Goizeder ospitalean da. Biziki gaizki da. Ez diot neho-ri erran, baina nahi nuke ninia eta ama biak biltzea. Amets urduri da.”

“Martxoaren 20a.

Hara, ninia sortu da! Zinez ederra da! Bere burrasoen larru iluna eta ileak! Aldiz Goizeder hil da! Gaixo Amets! Baina ene planarentzat hil behar zen. Hara ene plana: Amets triste da, edanarazten dut eta milioi bat pariatzen dugu joko batean, irabazten dut. Sos hori ezin du ordaindu, orduan erraiten diot milioi baten orde bere semea emateko. Segur naiz ongi aterako dela! Gero denei erraiten diet umezurtza dela eta horrela Kattalin eta ni uros izanen gira betiko...

Zer munstroa! Hara, egia osoa! pentsatu zuen Kittok. Baina, orduan ene aita ez da hila! Hemen nonbait zen nik jakin gabe!

Aski irakurri zuen. Itzuli zen bere ganbarara. Eta pentsatzen hasi zen: “Hiru aste baino guttiago ditut ene aita kausitzeko, ez dut nahi gehiago munstro honekin bizi!”

Biharamunean bere ikerketak hasi zituen, denei galdeginez ezagutzen zutenentz Amets deituriko bat, gutti gora behera berrogei urtekoa. Baina galdezkatu zituen jende guziek erantzun ezezkorra eman zioten.

Elenaren ikustera joan zen. Ongi iduri zuen, baina medikuak erran zion zirrara handi bat ukan zuela eta anitz pausatu behar zuela. Aste bat horrela pasa zen.

Eta bere urtebetetzearen eguna heldu zen. Amak beztimendu berriak oparitu zizkion, aita txokolateak eta sos pixka bat. Baina eguerditan ustegabeko handi batek goaitatzen zuen: Zortatxar jauna

etorri zen besoak kargaturik, irria ezpainetan. Kittok, bihotza beroturik, ideki zituen Zortatxar jaunaren opariak: tren elektriko bat, bi liburu eta bibolin musika-partiturak. Eta erran zion irriz: “Mutiko batek ez ditu egunero 11 urte betetzen!”

Kittok eskertu zuen, bere oparien balioaz ohar-tuz. Egun eder bat pasatu zuen. Oraino bi aste eta gizon maitagarri hura utzi beharko zuen. Jaun hari biziki atxikia zen. Eta pentsatu zuen nahiago zuela Zortatxar jaunarekin egon bere burraso-ordeekin joan baina. Baina zer egiten ahal zuen? Bere burraso-ordeeri erran? Futitzen ziren bere pentamenduez. Edo beharbada ihes egiten ahalko zuen! Bai, ideia ona zen, baina ohartuko ziren bere desagertzeaz. Bi azken asteak arras fite pasatu ziren. Baina joateko egunean Zortatxar jaunak erran zion: “Badakizu, nahi baduzu enekin etortzen ahal zira!”

Eta horrela, mutikoak ihes egin zuen. Bere burraso-ordeak ohartu ziren bere desagertzeaz itsasuntzira arribatzean. Ez zuten deus egin presatuegiak baitziren. Berantago, Kittok jakin zuen beldur zirela Elenaz. Frogak bazituen haien kontra. Eskapatu eta gero Zortatxar jaunaren etxera joan zen. Kittok luze begiratu zuen Zortatxar jauna eta bat-batean galdegin zion:

Baina Maset zure izena ez dea Amets ene aita desagertuaren izenaren anagrama? Ametsek besotan hartu zuen deus erran gabe, baina bere begian pozezko malko bat agertu zen.

Hilabete bat berantago Elena jeiki zen. Eta aitak Kittori esplikatu zion bere ama hil ondotik Elenaz

maitemindu zela, eta Elenak mutikoa zaintzen ziola. Ametsek esplikatu zion ere delako bi gizon itsusiek nola harrapatu nahi zuten gero berari sosa galdegiteko.

Handik harat, hirurak uroski bizi izan ziren; Kitto bibolin jole profesional bilakatu zen, ezkondu zen, hiru haur ukan zituen eta liburu bat idatzi zuen. Liburua "Tikot Orzatzatarren historia" deitzen da.

Baina Tikot Orzatzatar ez ote da Kitto Zortatzarren anagrama?